

Zer ikasleria sar daiteke?

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetara eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetara **urtean zehar etorri berri diren, eta urte batean HIPI** laguntza jaso duten **ikasleak**. Beti, eskolako komunikazio- hizkuntza, **euskara**, ikasi behar dutenak.

Ez dira sartzen, bi ikasturtetan HIPI laguntza jaso dutenak.

Zenbat denbora egon daiteke ikaslea programan?

Printzipio orokor gisa, **bi ikasturteko** (24 hilabeteko) iraupena izango du baina, **hirugarrena** (36 hilabete arte) luzatu daiteke, beti ere Programako Batzordeak eta Eusle irakasleak froga bat pasa ondoren horrela erabakitzen badute.

Zenbat saio Eusle gelan?

Egunean bi ordu jarraian, lehenak edo jolas aurretik eta ondoren; edo hiru ordu, astean, gutxienez 10 eta gehienez 12 ordu.

Saio horiei beste aukera osagarri batzuk gehitu ahal izango zaizkie (**Bidelaguna programa, indartzeko udal- programak**) beti ere, Eusle gelan **zortzi ordu betetzen badira eta ikasle guztiak parte hartzen badute**.

Zer da Eusle programa? Zein da bere helburua?

Hizkuntza-murgiltze programa bat da, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan gure hezkuntza-sistemara etorri berri diren ikasleei eskolako komunikazio-hizkuntza, euskara, eskuratzeko prozesua errazteko.

Ikasleak Eusle Programaren bidez hasierako komunikazio-gaitasuna lortuko du (**A2**), eta, ondoren, berariazko laguntza izango du curriculumean aurrera egiteko.



**Gutxienez 6
ikasleko taldea**



**EUSLE
PROGRAMA**
Eskuliburua



Nork emango ditu Eusle orduak?

Eusle gelak bere irakaslea izango du. Irakasle hori ikastetxean behin betiko funtzionarioen artean edota egonkortuta dauden irakasleen artean aukeratuko da. Bere jardunaldi osoa Eusle gelako ikasleen arreta eta premietara bideratzea: Eusle gelan 10-12 ordu eta, ordutegiaren eta taldearen beharren arabera, Eusle gelako ikasleen erreferentzia geletan bigarren irakasle moduan laguntzak eman

Zer egin behar du ikastetxeak programan sartzeko?

- Taldea osatzeko baldintzak betetzea.
- Ikastetxeko klaustroaren % 80aren onespena izatea (aktan jaso).
- Urtero, eskolako konpromisoa onartzea (I. eranskina).
- Ikasleen zerrendak eguneratua izatea (II. eranskina) eta talde dinamizatzailea martxan jartzea (III. Eranskina).
- Irailaren 15erako eranskin guztiak Hezkuntza Departamendura bidaltzea.

Zer eskaintzen du Hezkuntza Departamenduak?

- **Aholkulari bat, aholkulariza, jarraipena eta formazioa egiteko**
- **Lurraldeko ikastetxeen sarea.**
- **Erkidegoko ikastetxe eta praktika onen sarea.**
- **Baliabideak: ongizate emozionala eta hizkuntza lantzeko .**
- **Jarraipen zuzena, Eusle gelarena, irakasleena eta ikasleena, kotutoritzaren bidez.**



- **Harreraren garrantzia: familiak eta ikasleak.**
- **Ikasleen ongizatea abiapuntu.**
- **Ikastetxeko irakasleen arteko koordinazioa. Denok batera goaz.**
- **Ikaslearentzat NJP Talde Dinamizatzaileak adostuta.**
- **Eusle gelak berezko nortasuna.**
- **Espazioak ikaskuntzarako baliabideak.**
- **Berezko metodologia hizkuntza eta edukiak proiektuen bidez.**
- **Laguntza erreferentzia gelan bigarren irakasle moduan.**